

GURE LIBURUAK

Euskal-liburu sailla, bear bestean goi maillara eldu ez arren, erkiña danik be ezin esan, Alegiña dagigun, baktotxak bere arloan, daukaguna irakurri ta barriak argitara emoten. Ona KARMEl'go liburutegian salgei daukaguzan zenbait idazti zar ta barri.

I.—AITA EMILIANO'RENAK

1) *Andre Mari Euskalerriko mendietan*. Etxenagusia, Bilbao, 1952. Oso ezaguna dogu Aita karmeldar au euskal literaturan. Euskera erreza erriko i ta landua darabil beti. Gaia, barriz, batez be liburu onetan, gozotasunez bete. Nor eta Andre Mari, nun eta Euskalerrian. Bikote bi bata baiño bestea ezti samurragoak! M. Lekuona'k liburu oneri egin eutsan itz-aurrean: «Liburu onetan bi gauza arkituko dituzu, besteak beste: ARGITASUNA TA GOZOA.» 28 laurlekotan salgei.

2) *Andre Mari gaztediaren eskuetan*. Itxaropena, Zarautz, 1954. Lenengoaren aizta lez dala, esan bear. An gure aurretikoak, Andra Mari zelako maite biziz laztantzen eben adierazten dauksu; emen, oster, gure Amaren doai, esker ta edertasunak jakin-erazoz, biotz barruetan maite-sua piztu, batez be gure gaztediaren biotz-zoko urduritsuetan. Garai egokiz argitaratua: Andra Mari'ren Urte santuan, bere Sortzea kutsu bakoa izan zala siñis-bearreko egizat erabagi zanetik eungarren urtean. Zeuk ikasteko nai beste edozei-neri erakusteko, liburu bikiña.

II.—AITA GOIRIA'RENAK

1) *Berrio-Otxoaren Bizitza*. Ordorika, Bilbao, 1952. Labur ta errez dakaz liburu onek Bizkai'ko lenengo Santuaren gertaera jakingarrienak. Irudi ederrak apaingaitzat. 98 orrialde. 10 pesetan salgei.

2) *Karmen'go Eskapularioa*. Bilbao-irarkolan, 1953. Mundu guztian zabal dabillen Karmen'go Amaren gutun edo eskapularioaren istori osoa dakar zati bitan. Edonorentzat ona, baiña batez be, abade ta eleiz-gizonentzako. Gai ugari aurkituko dabe berton bai itzaldiak egiteko bai eraspén osasunkor orretan eleiztarrek bizkortzeko. 200 orrialde; 25 laurleko.

3) *Fatima'ko Ama Birjiña*. Bilbao-irarkolan, 1956. Fatima'ko Amaren jaiera, atzokoa dan arren, mundu osoan zabaldu da. Guk be zeezer bear genduan. Aita Goiria langilleak, Fatima'ko edestia ederto azaltzen dauksu liburu txanbelin onetan. Edonon ta nainun irakurteko idazti atsegiña. 260 orrialde; 25 laurlekotan salgei.

III.—AITA ONAINDIA'RENAK

1) *Milla Euskal Olerki eder*. Itxaropena, Zarautz, 1954. Bilduma zoragarria, euskal olerkiz egiña. Iru sail ditu liburu mamintsu onek: I. *Erri-olerkiak*: 1) gerta-olerki zarrak; 2) maite-leloak; 3) irri ta negar; 4) ardo-kantak; 5) jainkotiak; 6) pastoralak; II. *Lau Gizaldi*, XVI, XVII, XVIII, XIX. III. *Gure mende*: 1) Bizkaikoak; 2) Gipuzkoarrak; 3) Bidaso'z andikoak. *Gegarria*: Bertsolariak. 1.200 orrialde; 100 laurleko.

2) *Goi-zale*. Gráficas Record, Bilbao, 1956. Idazti txikia azalez begiratu ezker, baiña guntu ta oso egokia edozein entzat. Iru zati ditu: 1) *Otoitzak*; 2) *Kenpis* edo *Kristo'ren Antz-bidea*, Aita Píok guztiz arduratsu euskeraldua; 3) *Eraspenak*. Barru-bizitzazale danak, nai-ta-ez aldean erabili bear dauana, zin-zíñez. 544 orrialde; 20 eta 65 pesetan salgei. Erosi eta etzara damutuko.

3) *Olerkiak*. Gráficas Bilbao, 1956. Arrese-Beitia'renak dira olerki edo bertso onek. Otxandiotar ospetsua il zanetik 50 urte dirala-ta, Onaindia'k batu, atundu ta argitara emon euskuzan aren bertso-lanik geienak Santugille ta olerkari aundi aren biotza pilpilka daukagu liburu onen lerro guztietan zear. Txepelak bizkortzeko egin-egiña. 688 orrialde ditu, ta 55 laurlekotan saltzen da.

4) *Bertso berri ta kanta zar*. Eibar, 1957. Or-emen zabal dabiltzan bertso zar ta berri asko dotoz liburutxo onetan; geienak kantetako egiñak dira, ots, erri-jai ta erromeri egu-netan. Astialdian barrua ustuteko, zuri be egoki yatortzu olako bat etxean. 64 orrialde; 5 peseta.